

Hitz beste

Haur eta gazte liburuen kritika eta erreseinak

Txerritxo

ARNOLD LOBEL

Itzultzailea: MANU LOPEZ GASENI

Pamiela/Kalandraka, Iruña, 2009

Bihotza berotzen


2007aren amaieran hasi ziren Pamiela eta Kalandraka argitaletxeak elkarrekin lanean; beraz, ia bi urte daramatzate album ilustratuak kaleratzeko abentura zirrargarrian.

Tarte luze horretan irakurleak ezagutu ditu emaitza interesgarriak: Hurbil –komunikazio faltari buruzko alegia moderno– edo... esku artean dugun Txerritxo hau, ezinbesteko ipuin klasikoak.

Txerritxoaren istorioa ezagutuko dugu: nola zoriotsu bizi den baserrian, xurgatzaile madarikatu batek etxeko eta inguruko zikinkeria guztia garbitzen duen arte, txerri txikiak erabiltzen duen lokatz-putzua barne. Tramankulua martxan jartzen denean, dena txukun eta dirdiratsu agertzen da. Orduan, Txerritxok alde egitea beste erremediorik ez du izango, tokia garbiegi baitago beretzat eta lokatz egoki baten bila hirira abiatzen da. Bidean aurkituko ditu zenbait putzu, baina ez dira egokiak bertan eroso eta patxadaz murgiltzeko. Horrela, Txerritxok paraje berriak bilatuko ditu, inoiz ikusi gabeko animalia eta gizakiak ezagutuko ditu, eta egoera dibertigarriak bezain tristeak biziko ditu.

Oro har, kontakizun umoretsua dugu, eta jakina da haur txikiarentzat umoreak duen erakargarritasuna; batetik, oinarritzko arauak hankaz gora jartzeko ahalmena du, jokabideak irauli egiteko boterea, eta, bestetik, poza eta zoramena ekartzen dio haurrari, baikortasuna bizitzari aurre egiteko.

Ipuinak sinplea ematen badu ere, sinpletasunean kontu sakonak ukitzen ditu. Horrez gain, gauza txikiak duten poetikotasunaz jabetzen da irakurlea, oso adierazgarria baita egungo begientzat, tramankulu moderno batek bizimodu zoriotsu



eta baketsua kolokan jartzen duen. Ipuin honek erakusten digu aldaketak neurrian egiteko, norberaren izaerari nahasmenik eta eragozpenik sortu barik. "Tolerantzia" ren aldeko gonbita egiten du istorioak, tolerantzia hitzak usain didaktikoa badu ere.

Txerritxo sentsibiltatez beteriko istorioa da, berotasuna transmititzen du, metaforaz eta gozamenaz ziprztindua. Nahiz eta ipuinean eguneroko kontuak azaltzen diren, haurrari emozioak ezagutu eta lantzeko lagungarri egingo zaio, sentimenduz gogoeta egin eta bizitzari ekiteko adorea emango dio. Iniziazio-ipuina ere bada, hirira egiten duen bidaiak uztartzen baititu norberaren esperientzia eta kanpoan bizitzen dituen abenturak.

Ilustrazioak apartekoak dira, izan ere, Arnold Lobelek (Los Angeles, 1933 - New York, 1987) jatorrizko ofizioa ilustratzailearena baitzuen. Hasieran, beste egile batzuek idatzitako liburuak marrazten zituen, 1962. urtean bere lehen liburua argitaratu zuen arte, *A zoo for Mister Munster*;

hortik aurrera, berak idatzi eta ilustratutako liburu ederrak etorri ziren, kritikarien eta irakurleen txalo mordoa jaso zutenak, sari ugariekin batera.

Haren liburu gehiago ere badira euskaraz, Kalandraka argitaletxean bertan, *Sagu kontuak* eta *Sagu zopa*, adibidez. Liburu horiei guztiei erreparatuta, ikusten dugu oreka perfektua dela hitzaren eta marrazkiaren artean. Ilustrazioak nahastezinak dira, kolore gutxikoak, antigoaleko ukituekin, behar bada. Pertsonaiak beti dira maitagarriak, izan sagu, hontz edo txerri. Inozoak dira bai, baina inoiz ez hutsalak, alaiak eta kuriositatez beteak, haurrak eurak bezalaxe.

Ipuin bizia eta hunkigarria; sinpletasun berezi horretan sakonera iristen den horietakoa.

Bikain ilustratua, bihotza berotuko diguna.

Asun Agiriano

Piztiak bizi diren lekuan

MAURICE SENDAK

Itzultzailea: KOLDO IZAGIRRE

Kalandraka, Pontevedra, 2009

Liburu onak haur bihurrientzat

2000. urtean kaleratu zen Kalandraka argitaletxe galaziarren eskutik haur literaturan egundoko garrantzia izan duen album ilustratu hau, euskaraz aspaldi agortua eta ia zko Gabonetan berriro berrargitaratua. Izan ere, lehen aldiz 1963an Estatu Batuetan jaio zenetik, ezinbesteko liburua da haur literaturan murgildu nahi duen edozeinentzat.

Liburu honek 1964an Caldecott saria jaso zuen, Estatu Batuetako bibliotekariak emandakoa. Sari honek bermatzen du liburua ez dela inoiz agortuta geratuko. 1970ean Andersen ilustrazio-saria jaso zuen, IBBY-International Board on Books for Young People-n eskutik, zelanbait esanda, haur literaturaren Nobel-a.

Oraingo edizioa zainduagoa datorkigu, letra larriak jatorrizko liburuan dauden bezala errespetatuz, esaldiak irudietara hobeto egokituz. Oro har, eskertzekoa da argitaletxeak egin duen esfortzua 2000. urtean argitaratu zuen edizioa hobetzeko. Zinema-aretoetan filma estreinatuta dela baliatuz, ipuin ezagun hau liburu-dendetako erakusleihoetan ikusi dugu berriro Gabon sasoiaren. Spike Jonze-k arrisku handiak bere gain hartuz, poesiaz betetako filma egin du, helduentzat akaso egokiagoa den pelikula «indie»-a. Obama presidentek ipuin kuttuna duela aitortu zien ikasle batzuei irakurtzen zien bitartean eta, gugandik gertuago, Ipupomamua haur literatura ezagutarazteko ETBk astero ematen duen saioak ipuin hau aukeratu zuen hasierako emanaldirako. Liburua inspirazio-iturri izan da artista ugarentzat, batzuetan keinu kuriosoak eginez, esaterako www.terribleyelloweyes.com amerikar web bitxian, non mundu osoko ilustratzaileen omenaldia jasotzen duen.

Album ilustratu bat zerk bihurtzen du klasiko? Zerk egiten du ezinbesteko hainbeste haur eta helduentzat? Zer misterio du ipuinak hain erakargarri izateko guztiontzat?

Liburua korrante psikoanalitikoan koka daiteke. Inkontzientearen labirinto misteriosuan barrena Sendak-ek haurra bere «mamuekin» harremanetan jartzen du, eta mamuok ezagutu,

3+



onartu eta gainditzeko aukera ematen dio. Max protagonistak egiten duen bidaia esanahi ugari ditu eta argi-itzalez beterik dago, horrelakoa baita haurren mundu emozionala, eremu misteriosu eta ahula aldi berean, non askatasuna, nahiak, amets debekatu eta gaiztoak bizi diren. Sendakek hor arakatzen du, beldur eta fantasien mundu aberats horretan, hor garatzen baita haurren nortasuna. Zuzen eta garbi adierazte honek ekarri du egilea helduentzat onartua ez izatea, piztiekin haurren beldurrak xaxatuko direlakoan. Berak halaxe dio: «Helduek haurtzaroa sentimentalizatzeko joera dute, gehiegi babesteko; uste dute haurrentzako liburuek haurren adimena moldatu behar dutela gizartean onartutako jokaeretara, eta lortu behar ditugula ume osasuntsuak, eredugarriak, jakintsuak eta zoriontsuak».

Max haur txiki basatiak garbi azaltzen du asperdura, amorrua, ezinegona. Bere logelatik atera eta irudimenean dituen munstroak sortuko ditu, batzuetan ikaragarri beldurgarriak, besteetan barregarriak, hain otzan eta umil agertzen baitzaizkio. Denen errege izango da, bere buruaren jabe, harro eta indartsu. Max-ek egiten duen bidaian pertsonaia klasikoaren tradizioa berreskuratzen du, heroiak lurralde urrun eta ezezagunetara bidaiatuko du, abenturak biziko ditu eta garaile itzuliko da. Beldurra poesiarekin elkartzen da; albumak indar hori du, liburu iraultzailea da. Behin eta berriz, nekatu gabe, irakur daitekeena.

Estetika aldetik urrats aurrerakoi eta berria ezarri zuen Sendak ilustratzaileak. Grafismo aldetik erritmo berria eman zion kontakizunari, marrazkiek orri osoa hartu zuten, indar narratzaile

handia dute irudiek; horregatik, ez dago hitzen beharrik, festa martxan jartzen denean, irudia nagusi da, hitzak soberan daude.

Piztiak bizi diren lekuan liburua beste birekin osatzen da *In the Night Kitchen* (1970) eta *Outside Over There* (1981). Ea argitaletxea animatzen den bi hauek ere euskarara ekartzen!

Asun Agiriano

Handitzen naizenean txakurra izan nahi dut

ANNE SCHNEIDER

Itzultzailea: AZTIRI ITZULPEN ZERBITZUAK
Tartalo, Donostia, 2009

Bestea izan

Liburu onak erakutsi egiten du, eta ez du zertan erakusteko asmoa esplizituki adierazi.

Esku artean dugun liburua bezalaxe, olgetan, konturatu gabe, irribarra ezpainetan utziko digu... eta ikasbidea.

Idazle/ilustratzaile holandar honek orain arte prestatu dituen bi liburua batera argitaratu zituen 2008an. Euskaraz ia zko udan kaleratu ziren *Ekilorea* eta *Handitzen naizenean txakurra izan nahi dut* izenburupean. Biek ere euren sinpletasunean ez dute oihartzun berezirik lortu gure artean. Bigarren honen gainean jardungo gara oraingoan.

Nagusiok behin baino gehiagotan haur bati egiten diogun galderari erantzuten dio ipuinak, hortik abiatzen da bai izenburua baita gaia ere: «Eta handia zarenean, zer?». Ideia bakar hori da ipuinaren ardatza. Mutil protagonistak txakurra izan nahiko du, lagunik handiena bera baitu. Hasieratik mutikoa eta txakurra dira protagonista bakarrak, ipuinaren erditik aurrera gurasoak eta lagunak agertzen dira. Izan ere, hasieran haurren mundua txakurrak betetzen du, Tim bezalakorik ez dago, mutikoak azañak txakurrarekin egiten ditu: txiza belarretan, lokatzatan ibili, putzuetan edan... Berak egin nahiko litzukeen guztiak txakurrak egiten ditu. Baina pentsatzen jarri eta beste batzuk ere hor dituela konturatuko da mutila: ama, adibidez, zeinekin gaileta goxoak egiten dituen; aita, bizikletan ibiltzen irakasten baitio; Jasmin, eskolako lagunik xarmangarriena... Horiekin dabilenean, txakurrak traba egiten dio, horrelakoetan mutikoa izan nahi du eta ez Tim bezalakoa.

Ipuinak irakurleei adiskidetasunaren eta norberaren izaeraren garapenaren berri ematen die, eta erakusten die kontu desberdinak direla gai izatea eta nahi izatea.

Ahots narratiboa mutilarena da, baina Tim txakurrak izaera propioa du. Lagun minak diren heinean, biak dira protagonista.

Ipuin honetan, ordea, marrazkiak dira funtsezkoena. Marrazkiei erreparatuta soilik, ondo ulertuko genuke istorioaren nondik norakoa.

3 +



Letrak ezabatuz gero, (letra larriak, argialetxeak aukeratuta, lehenengo irakurleentzat egokiagoak direlakoan) erraz asmatzen da istorioa. Beste garai batzuetako ilustrazioak dirudite, izaera oso sinplea dute, inozoak eta zuzenak dira, alaiak, irudiek gozotasuna transmititzen dute, haurtzarorearen inozotasuna gordetzen dute nolabait, baina txepelak izan gabe.


Koloreen erabilera oinarritzakoa da, berdea eta urdina dira nagusi, naturaren koloreak. Mugimendua eragiten duten marrazkiak dira, horrela gozatzeko baitira lagun biak, arinetan eta jauzika. Ez dago kolore ilunik edo irudi abstrakturik. Inguruak, pertsonaiak bezala, garbia eta gardena da.

Badute, halere, berritasun ukitua. Irudigileak detaile bitxiak agertzen ditu orriotan, testuak berak ematen ez dizkigunak. Ezkerreko orrialdea jarduera nagusiaren osagarri da. Irakurleari egiten dizkion keinuak dira, gordeta dagoen mezua. Horrela, bada, hitzek baino ilustrazioek ematen dute informazio gehiago. Proposamen interesgarria da, inolaz ere.

Horregatik pasa zaigu liburua oharkabean: ilustrazio errazak, errazegiak, agian; irakurtzera bideratuta dauden hizkiak. Nonbait, apaletan geratu da ipuina hainbat hilabetetan. Alabaina, hartu du bere tokia, merezi du erakustea, begirada alaitu egingo digun ipuina baita.

Asun Agiriano

6 +



Amonak Alzhei... zer?

VERONIQUE VAN DEN ABEELE

Ilustratzailea: CLAUDE K. DUBOIS

Itzultzailea: AZTIRI ITZULPEN ZERBITZUAK
Tartalo, Donostia, 2009

Maitasun historia baino zerbait gehiago

«Katixa naiz. Nire amonari oso gauza bitxia gertatu zaio; oraintxe kontatuko dizut zergatik dabilen horren arraro...» Horrela hasten da *Amonak Alzhei... zer?* liburu hau; eta izenburuak adierazten duen bezala Katixak amonak duen gaixotasun bati buruz hitz egingo digu. Izan ere, askotan aipatu izan dugun bezala, haurrentzako liburuek bi hartzaille dituzte; alde batetik haurra dago, Katixak kontatzen dion historiari abiatuta gaixotasun horretaz zerbait ikasiko duena, eta, bestetik, haurri liburua hurbiltzen dion bitartekaria (irakaslea, gurasoa, bibliotekaria, laguna...). Azken horrek —erreseina hau irakurtzen duenak bezala— izenburutik bertatik sumatzen du zertaz ari den liburua, Alzheimer gaixotasuna duen amonari buruz, alegia.

Katixak, txikitako oroitzapenetatik abiatuz, amonarekin duen harremana azaltzen digu. Nola joaten zen haren etxera, nolako une zoragarriak igarotzen zituzten elkarrekin, argazkiak ikusten pasatzen zituzten une atseginak, erosketak egiten, sukaldean janaria prestatzen, antzinako oroitzapenak kontatzen... baina hori guzti hori okertzen hasi zen egun batean: «egun batean, amonaren etxera joan nintzenean, zerbait oker zebilela konturatu nintzen. Amonak esan zidan: "Egun on, Rosa". "Baina ni ez naiz Rosa! Amona, okertu egin zara, Katixa naiz!" Txantxetan ari zela pentsatu nuen...».

Katixak poliki-poliki deskubritzen du amonak gauza arraroak egiten dituela, ez dela txantxetan ari, eta pixkanaka aldatzen eta urruntzen ari dela; «Egun batean ahozapia jaten saiatu zen! Konturatzeko zara? Zertan ari zen begira ibili behar genuen beti. Eta orduan ulertu nuen. Nire amonak ez zuen pailazo izan nahi, gaixorik zegoen». Veronique Van den Abeele idazleak Katixaren begien bitartez erakusten digu Alzheimerren garapena, nola joaten den aldatzen pertsonen bizimodua gaixotasun horren ondorioz. Oso modu sinplean, eta, batik bat, maitasun handiz kontatzen zaigu, haur batek ikusten duen moduan.

Argi dago egileen helburua zein izan den liburu hau idatzi eta ilustratzerakoan, baina liburuaren argumentu hori haur txiki baten ikuspuntutik egiteak eta, batez ere, lehen eta oraina lotzen dituen moduak balio erantsia ematen dio lan honi. Katixak amonaren gaixotasunaren berri ematen digu baina hori baino garrantzitsuago, Katixak amonarekin izan duen eta duen harremanen berri ematen digu. Lehen, amona baldin bazen bion arteko erlazioan rol aktiboena zuena, orain Katixa da amonari gauzak azaltzen dizkiona... eta bai lehen, bai orain, biak dira elkarri «musu handi zaratsuak» ematen dizkietenak.

Liburua, haur txikiarentzat izanik, testuaz eta irudiez osaturik dago, eta bigarren horiek —irudiak— oso kolore apaletan daude (ez dago kolore bizirik, deigarririk...) eta, zenbait kasutan, irudia laino batez edo inguraturik ageri zaigu, amonaren baitan gertatzen dena irudien bidez azaldu nahian. Detalle txikiak jarri beharrean, giroa da irudien bidez adierazi nahi dena, eta testuarekin ere gauza bera gertatzen dela esan genezake. Egileek historia zehatza kontatzen digute, baina edozeinen historia izan daitekeena era berean.

Narratzailea haur bat izateak —eta lortua da narratzailearen ikuspuntua eta hizkera— hurbildu egiten du argumentua irakurlearengana, sinpatia eta identifikazioa lortuz, eta baita are hunkigarriagoa bilakatu maitasunezko historia eder hau.

Xabier Etxaniz Erle



Antton eta Eguberrietako oparia

OLE KÖNNECKE

Iztultzailea: LOLA ERKIZIA eta INAZIO

MUJIKA IRAOLA

Alberdania, Irun, 2009

Bihotza berotzen (eta II)

2008an hasi zen Alberdania etxea Antton protagonistaren istorioak argitaratzen: *Antton eta neskak* eta *Antton eta hostoak*. 2009aren azken aldera, esku artean dugun *Antton eta Eguberrietako oparia* argitaratu du. Hirurak oso edizio zainduan, ipuinetako bat formatu txikian eta beste biak handian, euskaraz eta baita gaztelaniaz ere.

Ustekabean harrapatu gaitu Anttonen hirugarren liburuak, dagoeneko Antton mutil sinpatikoa eta hurbilekoa dugunean. Pertsonaia maitagarria, inozoa, inondik ere ez inozentea, alaia eta jakin-min betea.

Anttonek, jolas eginez, haur batentzako sentimenduak adierazten dizkigu. Antton ekimen handiko mutikoa da, helduen laguntzarik gabe ondo moldatzen dakiena, ez da geldi egotekoa eta hiru kontakizunetan beldurrik gabe egiten du aurrera. Modu goxoan azaltzen dizkigu eguneroko istorio arruntak, abenturak bizitzeko gogoak, edozeinek senti dezakeen nahigabea, maitasun beharra, zelok...

Antton eta neskak ipuinean polita da ikustea berak nola dituen gogoko neskak. Neskak, baina, ez dira konturatu ere egiten Antton inguruan dabilenik, atentzia ematen, zorakeriak egiten. Bat-batean oharitzen dira Antton ondoan dutela, erori eta negarrez hasi denean. Inguratu, gaileta

eman, animatu... eta neskekin jolastera doa mutikoa guztiz zoriontsu. Gertaerek eta jokabideek majo islatzen dute geure burua, horregatik heltzen zaigu ipuina barruraino, barne munduan murgildu eta gertatzen zaiona kontatzen digulako, guztia esan barik. Bestalde, ipuin horretan azpimarratzekoa da adiskidetasuna eta rol sistemen haustura modu delikatuak nola azaltzen dituen, umorea erabili gainera. Eta ez da gutxi!

Antton eta hostoak albumean ere jolasa da nagusi. Orbel mordoak pilatu ondoren, gure protagonista kuttuna konturatuko da haizeak hosto bat daramala, horren atzetik joan eta egoera barregarriak suertatuko dira ipuin osoan.

Eguberrietako hirugarren ipuin hau ezberdina da, ordea, irakurleak istorio luzeago bat aurkituko baitu. Bizarzuriri lera gainetik opari bat erortzen zaio, eta Antton itzultzen saiatuko da basoan zehar, paisaia elurtuak ikusiz, animaliak deskubrituz (otsoak, hartzak, oreinak). Argumentuak garapen luzeagoa du eta irakurleak ere adinean nagusiagoa izan behar du. Trama oso erraza da, baina oraingo honetan litekeena da idazleak ilustratzailea gailentzea. Esango nuke testuak soberan duela ornamentua eta, ondorioz, errazagoa da irakurlea galtzea, erretorikak aurre hartu diolako hitz zehatz eta egokiari.

Antton pertsoniarekin zaletu ginenok, ez dugu hainbeste gozatuko istorio honekin. Istorioak, luzeagoa izanda, xarma pittin bat galdu du.

Alemaniar ilustratzaileak ezagunenetakoa da Ole Könnecke. Haren marrazkiak bikainak dira, oso adierazgarriak, finak, xumeak, apalak, kolore gutxiok; zuria nagusi dute, hobeto azpimarratzeko marrazkien finezia. Hiru ipuinetan ilustrazioak ezinbestekoak dira: marrazkiak soilik irakurrita ere, erraz uler daiteke istorioaren nondik norakoa. Egileak idazle moduan haurtzaroko duen jakintza berezi hori nabarmetzen du, Carlitos Brown edo Mafaldaren umore ukituak ere erraz antzematen zaie Anttonen pasadizoei.

Eskertzekoa da Alberdania argitaletxeak Anttonen liburuak kaleratu izana; izan ere, negu honetarako badugu laguna, epeltasunerako konpainia bikaina.

Asun Agiriano



Basoak badu sekretu bat
JAVIER SOBRINO & ELENA
ODRIOZOLA
 Itzulpena: ARKAITZ GOIKOETXEA
 Txalaparta-OQO, Tafalla, 2009

Sekretuaren ederra

Euskaraz argitaratzen den album produkzio ia guztia itzulpenen bidez iritsi eta iristen zaigu. Duela urte batzuk Kalandraka etxeak bere aldetik ekin zion euskaraz ere argitaratzeari eta, ondoren, Pamiela etxearekin batera ari dira beren album ezagunenak (eta baita euskaraz sorturiko Etxepare saridunak) plazaratzen. 2009. urtean, berriz, antzeko beste akordio baten berri izan dugu, Txalapartak eta OQOk egin dutena, eta hain zuzen akordio horren ondorioz argitaraturiko liburuen artean dugu hau.

Basoak badu sekretu bat liburuan hasiera-hasieratik nabari ditzakegu liburu honen nondik norakoak. Gaia misteriotsua da, sekretu baten inguruan eraikitako kontakizuna; ilustrazioak, berriz, Elena Odriozolaren estilo arin eta iradokitzailean, animalien arteko harremanaren berri ematen digu. Istorio honetako protagonista nagusiak bi baitira, Urtxintxa eta bera («hantxe ikusi zuen bera, urki batetik behera zetorrela. Ausarta zirudien, eta misteriotsua»). Eta, hain zuzen, Urtxintxak basoko animaliekin dituen elkarrizketen bidez lortuko ditugu hainbat datu berari buruz, hari eta amaieran, gure jakin-nahia asetu arte.

Albumak irudi eta testu irakurketak eskatzen ditu, eta, alde horretatik, oso aberatsa da bai Elenaren ekarpena bai Javier Sobrinoren idazkera poetikoa; azken horren adibide argia dugu ipuinaren hasiera bera: «Iparraldeko basoetan itsaso usaina dago, zuhaitzak altxorren gorde-

leku dira, lainoek misterioak ezkututzen dituzte, haizeek mezuak daramatzate eta animaliak sekretu liluragarrien jabe dira». Ideiak azaltzen dira, baina baita iradokitzen, aipatzen... eta antzeko zerbait gertatzen da Elena Odriozolaren irudietan ere, koloreen nahasketarekin, figuren neurriekin, espazioen banaketarekin... jolasten baitu ilustratzaile donostiarrak.

Basoan sekretu bat dago eta sekretu hori, irakurleak berehala ikusi ahal izango duen bezala, Urtxintxaren harremana da. Hasierako enkontru baten ostean Urtxintxak ezin baitu burutik kendu bera («Orduetik aurrera, bera etortzen zitzaion gogora Urtxintxari noiznahi»), eta burutik ezin kendu horren ondorioz ikusi ahal izango dugu Urtxintxa animalia hainbatekin hizketan, aholku eske, bere egoera azaltzen... amaieran misterioa argitzen zaigun arte.

Liburua, alde horretatik, oso ederra da, transmititzen dituen balioengatik (eta horretaz irakurleak egin dezala gogoeta misterioa argitzean) eta duen balio poetiko estetikoagatik. Poztu behar dugu, horregatik, euskaraz eskaintzeko aukera dugulako, baina oraindik orain ezin gara guztiz poztu liburu horietan ere «dependenteak» garelako.

Xabier Etxaniz Erle



Otsoa, axeria eta ahuntzak
AMAIA HENNEBUTTE MILLARD
 Ilustratzailea: LUCA ENO TRIMALDI
 Ikas, Uztaritze, 2009

Tradizioaren xarma

Literaturaz hitz egiterakoan maiz izan ohi dugu liburuaren inguruko kontuez aitzeko tentazioa. Kasu honetan, esaterako, norbaitek aipa lezake zein zaila den Uztaritzen argitaratutako liburu hau Hegoaldeko liburutegietan eta liburu dendetan aurkitzea, eta, hala eta guztiz, liburu berria izanik telebistan —Ipupomamua programana— komentatu izan dela, edo liburu euskara sustengatzeko ekimen baten ondorengo trilogia bateko lana dela. Pertsona horrek komenta lezake ere nolako muga dagoen Iparraldeko euskaldunen eta Hegoaldekoen artean (hezkuntzan, hizkuntzan, irakurketetan...), eta abar. Baina hori dena funtsezkoa izanik literatura sistemaz hitz egitean ez dut uste liburu baten komentarioa egiterakoan garrantzitsuena denik, edo ez liburuak berak dituen balio eta ezaugarriak baino garrantzitsuagoa.

Izan ere, *Otsoa, axeria eta ahuntzak* liburu aspaldian eskuratu dudana liburu gomendagarrienetarikoa da. Haurrentzako albuma dugu, irudi handiak eta oso adierazkorrak, kolore bakarrekoak eta, hala eta guztiz, oso duinak; are gehiago, nik esango nuke oso lortuak direla zuri-beltzeko ilustrazio horiek —akuarela, eta urarekin lorturiko tonalitate ezberdinak erabiliz eginak—. Alde horretatik txalotzeko lana egin du Luca Enok testuak iradoki dezakeenaz haratago joanda, albumetan behar den bigarren irakurketa —irudien irakurketa— lortu duelako.

Liburuak zazpi ahuntz, azeri bat eta otso baten istorioa kontakten digu; ez da Grimm anaien ipuin


ezaguna, baina bai ahozko tradizioetik jasoa, euskal tradizioetik jasoa, hain zuzen. Jean François Cerquandek euskal ipuin herrikoiak jaso zituen 1874. eta 1885. bitartean *Legendes et récits populaires du Pays Basque* lanean, eta istorio horietako bat da Amaia Hennebuttek orain eskaintzen diguna. Izenburuaz ohartuta, tradizionala izanik, norbaitek pentsa dezake otsoak ahuntzak eraso eta haiek akabatuko dituela, baina azeriaren papera guztiz garrantzitsua da ipuin honen nondik norakoan. Otsoaren etsaia ahuntzen alde jarriko da, eta horiei azalduko die nola irten garaille otsoaren aurrean, nola adarra jo otsoari: «Erran bezala, goizik, bidexkan/ axeria hor zuten atxeman./ Harro, irria ezpain zokoan,/ otsoari ziria sartu nahian» (30. or.).

Psikoanaliaren ikuspuntutik ipuinak erakusten du nola dauden ahulak, txikiak, makalak indartsuaren, boterearen indarkeriaren menpe. Ahuntz-kumeak otsoaren janari bilakatu behar dira, horixe da haien patua. Baina txikia (eta herri ipuinetan baita pobrea ere) garaille irten daiteke borroka horretan irudimena eta burua erabiltzen baditu, handia baita otsoaren indarra baina handiagoa beldurrarena: «Otsoa beldurtu zen kuxian,/ eta brix! Eskapatu ikaran, / buztana bere patten artean. / Ez zuen nahi burua ukan / ahuntz horien adarren artean!» (42. or.)

Otsoa, axeria eta ahuntzak liburua aukera ederra da ipuin tradizionalen xarmaz gozatzeko, antzinako istorioen tonua, erritmoa eta tentsioa ditu kontakizunak, baina, horrez gain, bizitzan aurrera egiteko, haurrei bizitzen laguntzeko tresna ere bada liburu eder hau. Are ederrago lkasekoekin edizio zainduan, kolore gutxi eta irudi ederrak erabiliz produktu oso duinak eta gomendagarriak egin daitezkeela erakusten dutelako.

Orain, bakarrik falta da liburua irakurleen eskuetara iristea!

Xabier Etxaniz Erle



Tita tirita
ANA URKIZA
Ilustratzailea: AITZIBER ALONSO
Ibaizabal, Euba, 2008

Ausardiaren aldarrikapena

Euskal Herriko liburu produkzioaren inguruan urtean bi aldiz igartzen dugu uholdea: Durangoko azokaren atarian eta udaberri aldean, Liburu Egunarekin batera.

Lehenengo data horretan denbora falta sumatzen da liburuak patxadaz aukeratu, aztertu eta ezagutzeko. Egun horietako zalapartan, obra batzuk oharkabean pasatzen dira.

Horixe da *Tita tirita* liburuaren kasua. Gaur iritsi zaio, kaleratu eta urte bete beranduago, berreskuratzeko sasoiak!

Tita tiritari esan diote bere patua dela zauriak osatzea eta, behin erabiliz gero, zakarrentzi batean amaitzea. Baina berak ez du bizimodu hori nahi, amets du besteen maitasuna, badaki besteek maita badute gorde egingo dutela, eta ez dutela erabilera bakarraren ostean botako.

«Ospea» lortu nahi du. «Ospetsuak mundu guztiak maita ditu» da erantzuna. Erraz esanda, lagun mordoia izateko, maitatua izateko.

Bizitzan iristen da garaia gurasoen konpainia, arreta eta maitasuna nahikoa izan ez eta haurraren aldaketak sortu eta errebeldia zantzu argiak ikusten direna. Ager daiteke ume/haur izateko bidean edo haur/gazte bitarteko jauzian. . . Titak ere bere nitasuna aldarrikatzen du gurasoen aurrean. Titak aldaketak amesten ditu,

mundua ezagutu eta asmo berriak gauzatu nahi ditu, «koloreetako arropak jantzi, etxez aldatu», «momentu txarretan jendea nitz gogora dadin eta betirako bihotzean gorde nazaten» desiatzen du. Tita tiritaren gizarteratzea kementsua da, «ama eta aitari lepoan korapiloa egiten zaien bitartean».

Izaki txikia den neurrian, haurren laguna izan nahiko luke, baina bizitzan jakintsu diren gurasoek erakusten diote «haurrak berekoiak eta bihotz gabek» direla.

Hemendik aurrera, zer gertatuko den eta ipuina nola amaituko den esaterik ez dago. Irakurleak aurkitu beharko du Tita-ri bizitzaren hastapeneko bidaia honek zer ekarriko Dion.

Liburuak baduzen bait balio eta gai-proposamen aztertzeko: norberaren mundu ikuskeraren aldarrikapena, bestearekiko iritzi eta jokabideen aurrean errespetuz aritzea, ausardia aintzat hartzea, e.a.

Bereziki bitxia egin zaigu eguneroko gauzei hurbiltzeko modua, tirta baten gorabeherak adibide hartuta, egileak duen abilezia gauza arrunt bat aukeratu eta haur irakurleari istorioa oso modu hurbilean luzatzeko. Ana Urkizak gauza-objektu bati erreparatu dio eta. . . inspirazioa inguruan aurkitu du. Begirada zorrotza duen seinale!

Aitziber Alonsoren ilustrazioak ezinbestekoak dira istorioa ondo ulertzeko, ausartak dira, koloretsuak, biziak oso. Tita tiritaren petoa mundiala da, gainerako tiritak biluziketa azal kolore tristea agertzen duten bitartean. Arte Ederrak ikasitako ilustratzaile gazte hau Albedaniak kaleratzen zuen *Talaia* izeneko aldizkarian hasi zen. Gaur egun, liburu ugari marrazten ari da hainbat argitaletxekin. Galtzagorri elkartearen areto literarioen eszenografiaren sorkuntza teknikoak egiten du. Estilo propioa du Alonsok: marrazki alaiak eta modernoak, pop itxurakoak, indar handikoak.

Oker bildumaren inguruan ere hitz batzuk, ausardia franko erakusten baitu maketazioan. Liburuaren azala tolestuta agertzen da, hitzak kolorez ziprztinduta, orrialdeetan letra larriak eta xeheak jolasean, hizki koskatuak kontrazalean. . . Honekin guztiarekin argitaletxeak lortu nahi bazuen irakurketa eta ilustrazioak erakargarri bihurtzea, liburu honekin, behintzat, asmatu du.

Asun Agiriano



Ane Pirata
MITXEL MURUA
Ilustratzailea: JULEN TOKERO
Elkar, Donostia, 2009

Gauza txikien handitasuna

Jesus Diaz irakasleak Haur Literaturaren transtestualitateaz hitz egitean aipatzen du hipotestu batzuk ezezagunak izan daitezkeela, edo beste modu batean esanda testu batean zaharrago bati erreferentzia, aipamena, egitean testu zahar horrekiko harremana ezaguna edo ezezaguna izan daitekeela irakurlearentzat. Azken kasu hauetan ez ezagutze hori izan daiteke hipotestua ez delako ezagutzen edo, beste arrazoi batzuen artean, pertsona konkretu bati edo batzuei eginiko keinua izan daitekeelako. Mitxel Muruak, Pirritx, Porrotx eta Marimotots protagonistak dituen liburu honetan baditu horrelako keinu batzuk (Pirritxek amaren figuraren alde egiten duenean, esaterako), bai eta ipuin tradizionalei eginiko keinurik ere.

Ane Pirata liburuak despistatu egiten gaitu izenburuari errepertuz gero, ez delako abenturazko liburu bat, ez delako piratei buruzko liburu, edo bai? «Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek badute lagun bat pirata izan nahi duena: Ane Pirata. Ospitalean erabaki zuen Anek pirata izatea. Ane gaixo dago: minbizia dauka», honela hasten da liburu hau, eta irakurleak ikus dezakeen bezala kontakizuna ospitalean gertatzen da, Ane gaixoaren inguruan. Eta Mitxel Muruak idatzi eta Julen Tokero-ek ilustratu dituzten pailazo ezagun hauen beste liburu batzuetan bezala, honetan ere narrazioa, kontakizuna, mezuekin tartekatzen da.

Anek minbizia dauka, gaixo dago ospitalean

8+

eta hala ere alai dago, pozik... ematen du berak animatu behar dituela bisitan etorritako lagunak; eta, hain zuzen, horixe gertatzen da Anek bizitzaz duen filosofiari esker («Han zegoen Ane, ospitaleko ohe bati itsatsita, tutuz eta hodiz josirik, eta pozik zegoela esaten zuen hala ere»). Ospitalean Anek badu lagun bat ondoko ohean, Patakonek pirata zaharra, eta Patakonek kontaturiko istorio bati esker Anek unean unekoa gozatzeko ikasi du, duenaz disfrutatzen.

«Piratak» sailari hasiera ematen dion liburu honek bi giro, bi tonu, bi istorio ezberdin ditu; alde batetik dugu ospitaleko gelan jazotakoa. Pailazoek, Anek eta, zenbait kasutan ere, Patakonek duten elkarrizketa; ohiko ateraldiak, kontakizunak eta batez ere gogoetak ageri dira. Horien ondoan, berriz, bada Patakonek historia edo istorioa, berari gertatutakoa, piraten kontua dena eta maitagarrien ipuinetako elementuak (debekatutako ateara, kasu) dituen kontakizuna. Patakonek istorioa, baina, oso ongi txertatzen da Ane eta pailazoen arteko elkarrizketan, izan ere, kontakizun horri esker du Anek duen filosofia, bizitzaren aurrean jarrera baikorra («Zoriontasuna norberaren barruan dagoela ikasi dut. Askotan gauza sinpleenak dira ikasteko zailenak»).

Pello Añorgak 2008an Euskadi saria jasotzean honela zioen «Zergatik ez diegu hitz egiten haurrei gauza altuez eta baxuez, zeruaren sabaiaz eta luraren geruza beltzaz?»; liburu honek, zalantzarik gabe, zabalitzen du haurrei kontatzeko gaien esparrua, ezkutatuak edo tabu diren gai batzuk plazaratu nahi ditu, eta alde horretatik eskertzeko da egileek eginiko esfortzua ikuspegi hori literatur lan batekin txertatzen, irakurketa atsegina eta arina lortzen, nahiz eta oraino honetan «filosofia»ren zama aurrekoetan baino nabarmenagoa atera zaien. Hala eta guztiz ere, *Ane pirata* hau oso lan interesgarria da planteatzen duen gaiagatik, ematen zaion irtenbideagatik... eta une atsegina pasatzeko aukera eskaintzen digulako ere.

Xabier Etxaniz Erle



Garazi gerezi
LEIRE BILBAO
Ilustratzailea: ESTIBALITZ JALÓN
Gero, Bilbo, 2009

Gerezi ipuina

Hitz jokia ematen du Gero argitaletxeak album eta haur liburuen arteko bilduman kaleratu duen liburu honen izenburuak. Pertsona izenak fruituarenarekin duen erlazioan oinarritutako jokia. Baina kontakizunaren azalean geratuko ginateke Leire Bilbao idatzi eta Estibalitz Jalón-ek ilustraturiko kontakizun honen komentarioa horren inguruan eraiki gero.

Garazi da istorio honen narratzailea, eta lehen pertsonan eginiko narrazioan oso giro pertsonala eta intimista azaltzen du hasiera-hasieratik: «Nire amonak gereziondo bat dauka. Urtaro guztietan egoten da loretan. Umea balu bezala zaintzen du gereziondo amonak». Eta hain zuzen gerezien inguruan dago eraikita ipuin guztia. Amonak gorde egiten dituen gereziak, amonaren gordelektik ezkutuan lapurtzen dituenak... eta, azkenik, Garazik eskuratu nahi dituenak.


Bai, ipuin honetako protagonistak hiru emakumezko horiek direlako, hiru belaunaldi, hiru emakume, hiru pertsona «gerezi garapen» ezberdinean. Amonak gereziak jan ohi ditu, amak noizbehinka lapurtu ondoren, eta Garazik... neskaxari gertatzen zaiona jakin nahi duenak ipuinaren amaiera irakurri beharko du. Izan ere, gerezi jateak ondorioak omen ditu, «Heldu gabe jaten badituzu haizeak eragingo dizkizute», eta haize horietan oinarrituta errealismotik fantasiara egiten du jauzi idazleak; amonak eta amak

—gereziak jatearen ondorioz, jakina— hegan egiteko ahalmena dute eta Garazik, lehenengo bata eta gero bestea, hegan harrapatuko ditu: «Amonak ez gintuen espero. Musika klasikoa zeukan jarrita tokadiskos zaharrea. Oinutsik zebilen, trapua esku batean, erratza bestean. Oinak airean. Tximini zulotik atera da. Aspaldi garbitu gabe zuela esanez desenkusatu da».

Narrazioa, ikusi ahal izan den bezala, esaldi laburrez osaturik dago. Egoera, sentimendu, ideien deskribapen labur eta zehatzak. Haur baten narrazioa, haur baten kontakizuna.

Fantasia, konplizitatea eta feminismoa (protagonista guztiak emakumezkoak, liburuaren tonua, irudien eta testuarena . . .) azaltzen zaizkigu Garaziren ikuspuntutik narraturiko istorio honetan. Irudietan ere, idatzikoan bezala, nabaritzen da hori guztia. Estibalitz Jalónek gerezien kolorea presente jarri du irudi guztietan. Soinekoetan, lurrean edo aurpegietao masailetan gerezien presentzia nabaritu dugu, agerian egon gabe, ikusi gabe, baina giroan beti presente sentitzen ditugun gereziak. Fruitu horiek guztiz oinarritzkoak baitira ipuinaren argumentuan, azken finean Leire Bilbaoren eta Estibalitz Jalónen kontua hau gerezi ipuina baita.

Xabier Etxaniz Erle



Lotsatia naiz
ANTXIÑE MENDIZABAL
Ilustratzailea: JOKIN MITXELENA
Elkar, Donostia, 2010

Masail gorriak zituen mutilarena

Azalak, izenburuak, bildumak, egilearen eta ilustratzailearen datuek, liburuaren kontrazalean ager daitekeen komentarioak edo zein adinetik aurrerako neska-mutikoentzat den adierazten duen oharra informazioa ematen digute liburuari buruz; hots, paratestuek informazioa eta laguntza ematen digute.

Kasu honetan «Eta zer?» bildumako liburu baten aurrean gaude. Hasieran Kultura sailaren laguntza zuten liburuak, geroago Hezkuntza sailarena eta orain, berriro, Kultura sailarena. Baina garrantzitsua da Hezkuntza sailetik eginiko sartu-irten hori, liburu hauek hasiera-hasieratik oso markaturik izan baitute helburu hezitzailea. Liburuak arazo bat edo egoera berezi bat planteatzen du, edo ohikoa ez dena, eta horren aurrean irtenbide baikorra ageri da. Ni honelakoa naiz, edo honela egiten dut, eta zer? Ez da ezer gertatzen hori horrela egiteagatik, horrelakoa izateagatik. Kontua da, eta hau askotan planteatu da haurrentzako liburuetan, oreka bat bilatu behar dela mezu pedagogikoa eta idazlan literarioaren artean, eta orain arte, bilduma honetan oreka hori, hau da, idazlan literarioak izanik mezu hori zabaltzea, nahiko ongi lortu dela.

Lotsatia naiz liburu honetan, saileko gainera-koetan bezala, izenburutik bertatik ikus dezakegu zein den protagonistaren (Eki mutikoaren) arazoa. Eta lotsa hori areagotu egingo da Ekiri «goma nazkagarri» batzuk ahoan jartzen dizkietenetik dentistarenean. Gainera, Ekik Lore gonbidatu nahi du bere urtebetetzera baina nola egin, berak prestaturiko trikimailua aldrebes ateratzen zaionean eta gonbidapen oharra klaseko beste neska baten eskuetara iristen denean?

Horixe da, hain zuzen, Antxiñe Mendizabalek planteatzen digun egoera liburu honetan. Ekik lagunak gonbidatu behar ditu txokolatadara, «Urduri jarri naiz lagunei gonbidapen-txartela eman behar diedala pentsatuz: “Ditxosozko aparatu honekin, gainera” [. . .] “Lehen itsusi, eta orain are itsusiago” pentsatu dut komuneko ispiluan nire piurari erreparatuz» (6. or.). Gainera, aruten lagun berezi bat gonbidatu nahi du: «Lore. Txikitatik dut gustuko; nire sekretu handia da» (8. or.), baina arestian aipatu bezala kontu hori korapilatu egingo da, bai eta goma nazkagarriak direla eta, Ekiren lotsa handitu.

Mendizabalek ipuina pieza gehitze bat bezala planteatu duela dirudi, eta pieza horiek Mitxelena-aren irudien bidez osatzen edo indartzen dira (aipagarriak dira, besteak beste, nola lortu duen koloreekin jolastuz jangelako ume guztien artean nabarmentzea Eki eta Lore, edo jolas tokian nola bideratzen duen gure begirada). Piezen egitura horretan aurkezpena dugu hasieran, ondoren Lore gonbidatzeko gogoia, geroago Ekiren gora-beherak gonbidapena Loreren eskuetara irits dadin, eta amaieran azken saioa, jangelan Lorerekin bazkaltzen duenean. Guztiek huts egin eta gero, Ekiren lotsak aurrerapauso hori eragotzi ondoren, azken unean patuak, halabeharrak, zoriak . . . irtenbide ezin aproposa ekarri dio Ekiri, bai eta bere lotsari eta, zergatik ez, liburuari.

Oro har, liburu lortua dela esan dezakegu eta hutsuneren bat aipatzekotan zera esango genuke bilduman ume potoloei buruz aritzen den liburu bat dagoela, edo beldurtiei, edo betaurrekodunei buruz . . . baina gainerako liburuetan ez da potolorik ageri, ez beldurtirik, ez betaurrekodunik. Baina hori bildumako kontua da, neurri batean.

Xabier Etxaniz Erle



Olagarro bat bainuontzian

LEIRE BILBAO

Ilustratzailea: MORKOTS

Elkar, Donostia, 2010

Maskota bitxiarena

Mikel gaztetxo dugu istorio honetako narratzailea; aitak egun batean arrantzara joango direla esaten dio eta horrela, ekintza xume eta simple horretatik abiatuta, hainbat eta hainbat gertakarien lekuko izango gara.

Oker ez banago hau da Jose Mari Morcillo «Morkots»ek ilustratu duen aurreneko liburuetako bat, eta aipagarria da testuaren eta irudiaren garrantzia liburuan. Izan ere, ez gaude album baten aurrean, baina irakurtze prozesuan edo liburuetako garapen bat egin beharko bagenu hauxe izango litzateke albumaren ondorengo urratsa. Irudi asko eta testu gutxi izan arren idatzizkoak badu eta autonomia. Hori bai, kasu honetan irudiak, zenbaitetan, testua baino harantzago doa informazioa ematean (haitzetara iritsi eta arrantzan hasten direnean bezala, ikusgarria da aitaren aurpegia eta larritasuna, Mikelen egoera lasai eta alaiaren parean).

Mikel eta aita arrantzara doaz eta legatza edo bisiguaren bila joan arren azkenean olagarro bat harrapatzen dute. Aitak aitonari buruzko komentario bat egiten du (haren galiziar errezetaren sekretua proban jarri ahalko duela) baina Mikelen asmoak beste alde batetik doaz.

8+

Mikeli ez diote maskotarik uzten etxean, ez katurik ez zakurrik, baina inork ez dio ezer esan olagarroei buruz. Eta, horrela, Erro, horrela bataiatu baitu Mikelek olagarroa, Mikelen maskota izango da (eta hori nahi du Mikelek).

Jakina, amari ez dio graziaz egiten bainatzeri joan eta olagarro bat aurkitzea bainuontzian; eta etxean zeuden arrainak —urontzian zeudenak— desagertu egiten dira, Erro ondoan egon eta gero. Aitonak ere borrokaren bat edo beste du Erroekin, eta, azkenean, irtenbide bat bilatzen dute (hobe izango litzateke esatea amak inposatzen duela irtenbidea) olagarroarentzat.

Narrazio laburra dugu, egun batean jazotakoak biltzen ditu, baina, hala ere, kontu asko aipatzen dituen narrazioa. Idazkera, erritmoa, bildumaren ezaugarriek markatzen dute. Irudiz osaturiko orriak, testu gutxirekin, ideia nagusiak aipatuz eginiko umore kutsuko narrazioa.

Argumentua ez da berria (G. Durrell-i irakurriak dizkiogu antzekoak, esaterako) baina Bilbaok ederki lortu du ipuinari dagokion tonua eta amaiera originala eta logikoa bilatzea, lastima irudien artean dagoen desoreka. Batzuetan —lehen planoetan— galdu egiten baitute, eta, bestetan, aldiz, nahiko lortuak direlako.

Edozein modutan *Olagarro bat bainuontzian* nahiko liburu interesgarria da, gustura irakurtzen den istorioa izateaz gain ederki eginak dituelako tonua, erritmoa eta irudien eta idatziaren arteko oreka.

Xabier Etxaniz Erle



Printzesa begi-zulo

JUAN KRUZ IGERABIDE

Ilustratzailea: ELENA ODRIOZOLA

Elkar, Donostia, 2009

Mila loreren usaina

Ipuin honen izenburua irakurtzen duena harritu egingo da; gure artean, gure tradizioan, ez baita ohikoa printzesak zaindu gabe egotea, printzesek sufritzea, printzesak pertsona arruntak izatea. Eta, hain zuzen, horrelako pertsonaia bat aurkezten digute Igerabidek eta Odriozolak ipuin honetan: printzesa pobre bat. Haren lurralde, erreal eta —era berean— miresgarria denetik alde egin behar izan duen printzesa baten istorioa kontatzen digute.

«Ipuin honetan printzesa txiro bat agertzen da, begi-zuloekin, San Borondon uharterko erregearen alaba. Begirada triste nekatua dauka, neguko arratsaldeko lainotsua bezalakoa.» Horrela hasten da ipuina. Eta hasierako tonu eta estilo hori izango dugu ipuinean zehar; protagonista txiroak ez du izen berezirik, hasiera-hasieratik adierazten zaigu haren egoera fisikoa (begi-zuloak) egoera ekonomiko eta sozialaren ondorioa dela eta, aldi berean, arrasto batzuk ageri zaizkigu idazkera poetikoaren inguruan. Are gehiago, esaldi horien ondoren ageri den poema txikiarekin: «Begirada eztko / haur zilarra; / negu beltzeko / artizarra».

Azken urteotan haur literaturan aldaketa nabarmenak izan dira, gaien trataeran, idazkeran, tonuan... eta *Printzesa begi-zulo* dugu horren adibide argia. Generoen arteko konbinazio

(agian gehitzea esan beharko genuke) dugu ipuinean; Elena Odriozolaren irudiek islatzen duten sententzioa, sentimendua, eta informazioari, gehitu behar baitiogu narratiba poetikoa eta poemen erabilera idazkeran. Izan ere, arestian ikusi bezala, narratzailearen kontakizunean poema labur batzuk –dozena bat– tartekatuta dugu Igerabidek, informazioa osatzeko baino poemen bidezko beste kontakizun bat, beste giroketa bat, egiteko.

«Ipuin honetan printzesa txiro bat agertzen da» dio egileak hasieran, eta printzesa horren istorioa kontatzen digute idazlearen eta ilustratzailearen artean. Horrela, ikusiko dugu nola printzesa txiroa izateaz gain, triste dagoen; aita galdu eta ama gaixoarekin beren uhartetik alde egin behar izan duen; nola heldu den lehorrera patera batean, nola hasi den lanean supermerkatu batean kutxazain... eta tristurak eta penak begi-zuloak handitzen dizkiotenean nola ezagutu duen printze bat.

Ohiko estereotipoak hautsiz («inoiz ez baitzuen nahi izan printze urdinik»), Odriozolak eta Igerabidek eguneroko istorioa kontatzen digute, maitasunezko istorio ederra. Irudiek eta idazkerak –poetikoa, poemak tartekatuta, irudien pintzeladak bezala kontatuta– are ederragoa egiten duten «mila loreren usaina zuen» printzesaren istorio bitxia.

Xabier Etxaniz Erle



Agur, ama!
YOLANDA ARRIETA
Ilustratzailea: AITZIBER ALONSO
Ibaizabal, Bilbo, 2009

Ama joaten denean

«Andre batek ezin zuen haurrik eduki» diosku Yolanda Arrieta ipuin honen hasieran, baina izenburuak berak ematen digu amatasun horren arrasto bat. Bai, andreak Basoko Andreak emaniko hazia erein eta zaindu egingo baitu, eta bertatik zer irtengo eta erdi lore, erdi ume bat, Lorea. Ipuinak, baina, ez digu andreaken istorioa kontatzen; ez, Lorea dugu protagonista eta «andreaken bizitza amaitzen» denean Loreak amaren mezu bat aurkituko du: «Ekin zure bideari», eta ibilbide inizatiko horretaz ari dira liburu-egileak, horretaz eta heriotzaz.

Gure gizartearen badira haurrei ezkututzen dizkiegun –edo ezkututzen saiatzen garen– errealitate batzuk; horietako bat heriotza dugu. Literaturan ere antzeko zerbait egiten da, eta, horrela, oso gutxitan hitz egiten da heriotzaz haurtzako lanetan (askotan, gainera, hildakoa animalia izan ohi da, edo aitona-amona zaharra). Arrieta eta Alonsok eskaintzen diguten lan honetan, aldiz, ama da hil egiten dena. «Lorea asko hazi da. Andreaken bizitza amaitu egin da» diosku idazleak esaldi tinko eta laburrez osaturiko testuan. Eta, ondoren, Loreak ekindako bidaian zehar, zenbait gertakarien ondoren itsas hondoan emakume berezi batekin egiten du topo: «–Nor zara?/ –Zure ama. Ez al zaitu ekarri hona

nire usainak?/ –Bai, baina, zu desberdina zara!/ –Egia. Hemendik aurrera zeuk gura duzun lekuan aurkituko nauzu, baina beste itxura batekin» (18.-19. or.).

Agur, Ama! lanak maite dugun norbaiten heriotza azaltzeko edo ulertarazteko balio digu, dolua pasatzen laguntzeko, gaur egungo gizartea eta bizitza nolakoak diren ulertzeko. Eta, alde horretatik, errealismo kritikoa, haurrei gizarteko kontu guztiak azaldu nahi zizkien korronte barruan, koka genezake istorio hau; baina errealitate bezala fantasiatik, fikziotik, edan dute egileek eta, horrela, pertsonaia fantastikoak ditugu, «erdi lore, erdi ume» istorio errealean.

«Oker» saileko gainerako liburuetan bezala, honetan ere istorioaren ikustea oso garrantzitsua da, letren tamaina, itxura eta kolorearekin jolasten da, eta irudiek –testuarekin bat egiten dutenak istorioan, narrazioa aberasteko eta osatzeko– liburuaren arloa eramaten dute. Hitz eta irudia dira liburu osagaiak, eta horregatik lehena, testua, dugu hain sintetikoa. Esaldi laburrak, bata bestearen ondoren, ideiak adierazteko. Eta bakar bakarrik elkarrizketetan ageri dira osatuago.

Liburu ausarta dugu, beraz, Yolanda Arrieta eta Aitziber Alonsoren azken lan hau, istorioa narratzeko moduagatik, baina baita ere, arestian aipatu bezala, aukeratu duten gaiagatik eta heriotzaren aurrean haurrak prestatzen joateko eginiko apustuagatik.

Xabier Etxaniz Erle

Rita eta hilobi-lapurrak

MIKEL VALVERDE

Itzultzailea: JUAN MARTIN ELEXPURU


Elkar, Donostia, 2009

Abenturak Faraioen lurraldean

Rita saileko hirugarren liburua dugu hau eta aurreko bietan bezala (*Rita tenislari eta Rita poloan*), honetan ere, Valverdek asmatuiko neska dugu protagonista nagusia. Oraingoan, gainera, izenburuak iradoki dezakeen moduan, abenturaz osaturiko liburu baten aurrean gaude.

Rita Egiptora joan da, han dagoen osaba Danielekin indusketa arkeologiko batean parte hartzeko asmoz. Aireportuan, baina, okertu eta bere bila joan denarekin elkartu beharrean beste batzuekin egiten du bat neskatoak. Gizon-emakume horiek indusketara doaz baina, Ritaren usteari kontra, ez osabari laguntzera, lapurtzera baizik.

Mikel Valverdek, aurreko liburuetan bezala, testua eta irudia erabiltzen ditu istorioa kontatzeko (irudia elementu osagarri gisa erabilita, egia esan), eta narratzaile orojakilearen bidez irakurlearen arreta erakartzea lortzen du. Hasiera-hasieratik jakingo dugu Rita okerreko gizon-emakumeekin joan dela eta, horrela, adi-adi jarraituko diogu



neskato bitxi eta azkarraren jokabideari okerraz oharitu arte eta baita handik aurrera ere.

Abenturen ohiko topikoak eta elementuak erabiliz, Valverdek liburu entretenigarria egin du, hori bai, sinesgarritasun aldetik badira txiripa gehiegi, baina antzinako filmeetan bezala —eta badu horietatik liburu honek— garrantzitsuena

ez da egia edo gezurra, sinesgarria izatea edo ez, kontua da irakurlea gustura egotea, liburuaren zurrunbiloan sartzea, eta Ritaren lokarri gero eta luzeagoarekin eginiko korapilo gero eta handiagoan nola harrapatzen den, «Orain, suaren argitara ikusita, Salim, Carlsson eta Paponet andereñoaren aurpegiak jende maltzur eta gaitztoarenak begitandu zitzaizkion Ritari. Lapur-talde beldurgarri bateko kideen aurpegiak ziren! Eta bera ere... talde horretako partaide zen» (41. or.), eta, ondoren nola askatzen den ikustea intriga eta tentsioa askatze horren parte direlarik: «Denbora oso mantso pasatzen zen, oso mantso, eta mantsoa zen gameluaren ibilera ere hondar-zelai ikaragarri hartan» (50. or.).

Egia esan Ritaren liburu honek, Garmendiaren abenturek eta estilo horretako beste batzuek bezala, badu abenturazko klasikoaren usaina, badu duela 50 urte eginiko filmen antza, nahiz eta gaur egungo irakurle gazteek horren berri ez izan. Baina, bai kasu batean bai bestean, une atsegina igaroarazten ziguten/digute. Eta, horretan, egilearen lana bezain garrantzitsua dugu itzultzailearena, Elexpuruk ederki asmatu baitu euskal irakurleen mailara egokitzen lana, liburu entretenigarri honen itzulpen ederra eginaz.

Xabier Etxaniz Erle

Ezekiel

JASONE OSORO

Elkar, Donostia, 2009

Musu bila

Bibotea egiteko erabakia hartu eta GilletteVenus Passion aurkitzen duen nerabe bat dugu liburu honetako protagonista. Lehen pertsonanbere bizipenak kontatzen dizkigun hamalau urteko mutil gaztea: Ezekiel, baina eskolan etakoadrilan guztiek Ros deitzen dutena, izan ere «Arrosaren munduan bizi den mutila, arrosa, beraz, Ros» baita bera.

Ezekielen aitak aspaldi alde egin zuen etxetik eta nobela honetako protagonista arreba helduagoarekin eta amarekin bizi da. «Kontua da emakumez inguratuta hazi naizela. Eta horrek asko markatzen du. Asko, asko, asko. Zin egiten dizuet bi emakumerekin hazteak ikaragarri markatzen duela bizitza.» (6. or.)



Estilo sinplean eta nahiko zuzenean, aurreko esaldietan ikusi ahal izan den bezala, Osorok mutil baten istorioa kontatzen digu. Istorio bat, koadrilan, erdi txantxetan, erdi beharrak eta nahiak bultzatuta, eginiko apustu baten inguruko istorioa. Kontua da hamalau urte eta hormonak pil-pilean daudela Ezekielen koadrilakoei apustu bat, edo lehiaketa bat, egiten dutela beraien artean ea nork eman (eta hartu) lehen musua.

Apustu eta jolas bat izan daitekeena korapilatzen joango da (bizitza bera korapilatzen joan ohi den gisan) eta sentimenduen terrenoan min egiteraino iritsiko dira.


Ohiko kontakizunetatik aparte, Osoro gaur egungo gizartea eta egoera islatzen saiatu da, bai eta gure literaturan hain arruntak ez diren sexu bereko harremanen berri agertuz, baina batik bat nabarmena da liburuan eginiko esfortzua sentiberatasuna erakusteko, estereotipoei aurre egiteko eta, era berean, historia bizi, entretenigarri eta sinesgarria egiteko; eta alde horretatik onartu

edo azpimarratu beharko genuke idazleak protagonistaren generoa aukeratzean eginiko apustua (gazteentzako bere aurreko hiru liburuetan protagonista neska izan baita).

Hogei bat kapituluk osatzen dute obra eta gertakarien gehitze horrek arintasuna eta bizitasuna ematen dizkio narrazioari. Irakurleak Ezekielen —eta ingurukoen— gertakarien, sentimenduen eta asmoen berri izango du, eta Ezekielekin batera sufritu maitasun ez ulertuagatik, lagunei traizionatu beharragatik, gertakariak gaizki ateratzeagatik. Eta horren guzti horren inguruan sexua ageri da (gazte literaturan askotan tabu izan ohi den kontua); mutilak neskak entrenatzen ikusten dituzte («titi dantza»), eskolan sexologia ageri da dituzten zalantzak eta galderak argitzeko («argi zegoen sexualitateari lotutako gaiak gure interes osoa pizten zutela»), neskamutilen arteko lehen harreman, galdera, tanteoak («Zuk ezagutzen al duzu birjinitatea galdu duen norbait?»), eta abar. Alegia, kontua nahiko modu esplizituan ageri dela gazteentzako obra honetan, eta horrek, beste gai, argumentu eta istorioez gain, are erakargarriagoa egiten duela obra hau.

Egon izan dira euskarazko gazte literaturan sexu harremanen berri ematen dituzten kontakizunak, deskribapenak (P.Zubizarretak edo J.M. Iturralde idatziak, esaterako); liburu honetan, berriz, ez dira horrelakoak ageri baina nobela guztia sexuaren inguruan eraikita dagoela esan genezake. Hormonek bultzatuta musu bat bilatzen duten gazte batzuek nola aurkitzen duten maitasuna, edo nahi gabe maitasuna nola gurutzatzen den gazte hauen munduan. Bukaerak, baina, errealismo ukitu nabarmena ematen dio gazteentzat oso egokia den obra honi.

Xabier Etxaniz Erle



Haizearen Tunela
JUAN KRUIZ IGERABIDE

Ilustratzailea: MONTESE TOBELLA
Giltza, Bilbo, 2009

Indarkeriak hautsia

Duela aste batzuk Iratxe Retolaza euskal literaturak eman dezakeen euskal jendearen irudiaz aritu zen; eta kezkatu ageri zen Kirmen Uriberen azken nobela zela eta. Ziur nago Iratxek haur eta gazteentzako euskal liburu gehiago irakurri balitu kezkatu egongo zela gure letretan gero eta arruntagoa den fenomeno batekin, protagonisten eta gertakarien unibertsalizazioa. Alegia, euskaraz idatzitako obra horrek ez duela euskal kultura ez euskal gizartearekin erlaziorik.

Batzuentzat arestian aipaturikoa oso ona izango da, beste batzuek, aldiz, zerbaiten hutsunea nabaritu dute. Kontua da *Haizearen Tunela* hau horrelako obra bat dugula, Hegoamerikan kokatua, bertako historia eta bertako protagonistekin. Hori bai, euskaraz ederki sortu eta kontaturiko historia.

Haizearen Tunela Joserena historia dugu; bera da narratzailea eta hamar edo hamabi urte dituenetik ezkondu arteko bizitzaren berri ematen digu. Baina, Jose protagonistak izanda ere, benetako protagonista herria da, herritar guztiak, eta horien

artean Jose eta honen lagunak eta familiarrak, baina baita herrira iritsi berria zen apaiz bat, Kasla. Apaiz horrek herria eraikitzen lagunduko die, argindarra lortzen, oilategia martxan jartzen, zinema, irratia, eskola. . . baina militarren estatu kolpe batek —hasieran oso urrun dagoen gertakariak— eta jauntxoek askatasun giro hori ezabatuko dute, aurretik eraman harrapatzen duten guztia, herria bera ere indarkeriaz hautsi.


Igerabidek nobela interesgarria eskaini digu; ez bakarrik protagonista nagusiaren garapenaren lekuko garelako («Ume izateari uzten ari naiz» diosku Josek nobela inizatiko honen atal batean) edo auzolanaren bidez herri bat nola eraikitzen duten erakusten digulako, baizik eta fikzio obra honek errealitate asko duelako, baina baita intriga puntu bat, tentsioa, maitasuna, jakin-mina eta irakurleak harrapatzen duten beste elementu ugari ere.

Liberazioaren teologia bultzatzen duten apaizen lana ageri da, baina baita bere lan sindikalagatik atxilotuak direnak, bortizkeria gordina jasan, jauntxoaren zapalketa eta maitasun historiak.

Baina horien guztien gainetik Igerabidek oso ongi irakurtzen den nobela bat aurkezten digu. Kapitulu ez oso luzeetan (nobelak 25 ataletan banaturik dago) Joserena bizitzako une ezberdinen lekuko izango gara, batzuetan jauzi handiak sumatuko ditugu kontakizunean; beste batzuetan, aldiz, gertakari baten berri nahiko zehatza azalduko zaigu, baina amaiera arte bada oreka bat, bat-bateko gertakariak hausten dutena azken ataletan, eta horrela mutiko horren bizitzako jazoera tragiko, komiko, amodiozko eta abarrez sufritu eta gozatuko dugu; eta Joserena garapen horrekin batera etxolez osaturiko auzo bat herri bilakatzen ikusiko dugu, elkarri lagunduz zailtasunak gainditzen dituzten herritarrak.

Lehenago aipatu dugu nobela honek, fikziozko obrak, errealitate asko duela. Hegoamerikan duela hamarkada batzuk jazotakoak islatzen dira idazlanean baina distantziak, bai fisikoak bai denborazkoak, arintzen dute errealismo hori; edo beste modu batean esanda, obra hau duela bizpahiru hamarkada argitaratu gero idazlan politikoetatik hartuko genuke; gaur, berriz, mezuak islatzen dituen, ideia batzuk transmititzen dituen eta gogoeta egitera bultzatzen gaituen literatura obra interesgarritzat hartzen dugu.

Xabier Etxaniz Erle



Ehun ipuin hitz gutxitan
JOXANTONIO ORMAZABAL
 Ilustrazioak: JON ZABAETA
 Elkar, 2010

Lagunekin pintxoak hartzen

Euskal haur literaturara hurbildu den edonork ezagutzen du Joxantonio Ormazabal. Editore izateaz gain ia berrogei libururen egile eta ehun baino gehiagoren itzultzaile baitugu Ormazabal.

Ehun ipuin hitz gutxitan liburu honen sarrera laburrean honako hau dio: «Idazle batek ipuin asko eta asko idatzi zituen egun eta gau askotan. [...] Gustatu ez zitzaizkion ipuinak San Joan suari eman zizkion. Eta besteak karpeta urdin batean gorde zituen. Liburu honetan argitaratuta daudenak, ehun gutxira, karpera urdinetik hartutakoak dira». Idazlea, jakina, Ormazabal bera dugu eta ehun kontakizun, pasadizo, txiste, ateraldi, asmakizun... hauek bere karpeta urdinetik ateratakoak. Eta horrela aurkeztu zitzaigun liburu hau apirila amaieran, eta handik egun batzuetara idazlea betiko joan. Herio sartu zaigu liburuaren irakurketan eta ageri da behin baino gehiago karpeta urdineko ipuin haietan, heriotzari ihes egin zion mutikoaren kontakizunean bezala («Nik heriotza hil egin dut» zioen mutikoarena, baina azkenean «heriotzak hil zuen haur, mutiko, gazte, gizon eta agure izandakoa»), edo zerura

12 +

oporretara joan zen gizonarena edo hortzak eta hotza parean jartzen dituen kontakizunean ere «gau hartan bertan gizon bat hotzak garbitu zuen kale gorrian» dioenean, besteak beste.

Tristurak eta saminak baina, ez digu eragotzi behar gainerako ipuinetan ageri den umorea, salaketa, literaturtasuna eta poesia. Joxanek pieza txikiz osaturiko menua eskaini digu, denetatik proba dezagun; bainuontziko ura nola hustu azkarren, nolakoa den loteria tokatzea, ikasle azkarrak nola erabil dezakeen burua lanik ez egiteko edo ipuin herrikoien aldaera dirudien «Oilarra eta eguzkia» kontakizun labor eta originala.

Esku artean dugun liburu oso arin irakurtzen da, nahiz eta zenbaitetan irakurritakoak gogoetarako —baita irribarrerako ere— tartea eskatu. Testu laburrak dira, orri erdi edo orri batekoak ia guztiak, eta alde horretatik tematika, estilo, narrazio mota, tonu... ezberdinek arestian aipaturiko pikatzen joateko sentazioa uzten digute; pintxoak hartzen joango bagina bazkari orduan. Eta ni horrela joan naiz liburu honetako kontakizunetan zehar, Jon Zabaletaren irudiek lagunduta (zenbaitetan oso-oso ederrak eta egokiak direnak), Joxanen konpainian ibili naiz, alzheimerraz kezkatuta, sukaldari hiltzaileari barkatzen, zortzi urtetik hamaikara zein tarte txikia dagoen kalkulatu... eta zuhaitz erraldoiaren bila:

«Bada hor nonbait, diotenez, zuhaitz handi bat, imajina ezin daitekeen bezain handia, milioika eta milioika hosto dituena. Pertsona bat hitzen denean, haren aurpegi bizi bihurtzen da zuhaitz handiaren hostoetako bat. Haize leun batek kullunkatzen ditu aurpegi guztiak. Ez dira aspertzen batera, hizketan, barrez, kantuan.

Denok daukagu zain, diotenez, hiltzen garenerako hosto bat zuhaitz handian.

Zientzialari, kazetari eta filosofo ugari dabilta zuhaitz horren bila. Baina oraindik ez du inork aurkitu» (10. or.).

Guk, hemen, ehun ipuin hauek eta beste hamai-ka ditugu irakurtzeko, kantak abesteko, poemak hunkitzeko, irakurtzen jarraituko dugu zuhaitz handiaren bila ari garela ere, bertan Joxan baitugu zain brometarako, barrez eta kantuan aritzeko, bai eta hauek bezalako beste istorio asko kontatzeko ere. Adiorik ez, gurekin zaude.

Xabier Etxaniz Erle

14 +



Mariziprintinek ez du zorioneko galeperrik nahi
NUNILA LÓPEZ SALAMERO
 Ilustratzailea: MYRIAM CAMEROS SIERRA
 Itzultzailea: ITZIAR DE BLAS; MIKEL GARMENDIA
 Txalaparta, Tafalla, 2009

Ni-tik Gu-ra

Esku artean dugun liburuan elkarlotzen dira ipuina, album ilustratua eta narrazio grafikoa edo komikia. Autofikzioa «modan» dagoen proposamen literarioa izanik, esan genezake kontakizun hau bete-betean koka daitekeela norberaren buruaz aritzeko generoan: Mariziprintin pertsonaiaren gorabeherak jakingo ditugu, bikote-harreman makaldu batetik atera eta bizitza berri bat aurkitzen duen emakumearenak, alegia.

Alabaina, istorioari ez zaio egozentrismo kutsurik antzematen; justu kontrako esango nuke, ukitu umoretsuz «zipritindutako» kontakizuna dela.

Emakumeek idatzitako/marraztutako istorio grafikoa lehendik ere ezagunak genituen, hala nola, *Persépolis*, *El juego de las golondrinas*, *Diario de una adolescente*, *Rollos míos*, etab. Liburu horietan guztietan egileak protagonistaren ahotsean jarriko ditu bizitzan izango dituen gorabeherak eta aldaketak. Mariziprintin liburuaren abiapuntua giza harremanetan sortzen diren arazoak eta gaizki-ulertuak dira, elkarbizitzak ekar ditzakeen atsekabeak.

Mariziprintin errealitatearen eta fantasiaren mugen artean dantzan dabil, ipuin tradizionalen elementuak era modernoan emanez: kristalezko zapatak eta galeperraren esaldiak Errauskine ipuin klasikoaren oihartzuna ekarriko digute, baita

amaierako esamolde ospetsuak ere, «eta zoriontsuak izan ziren. . .». Baina kontakizun hori, maitagarrien ipuinetan ez bezala, printzearekin ezkontzen den egunean hasiko da.

Halako batean, Marizipriztinek zoritxarreko zapatak pikutara jaurtiko ditu, printzea utzi eta galeperrak erosi behar dituela ahaztuko du, errudun-sentimenduak albo batera laga eta planto egingo du. «Orduantxe hasi zen bere buruari barre egiten» eta, bide batez, irakurleoi eragiten, zeren umore zertzeladei eta ironiari esker, guri ere irribarra aterako baitigu.

Lelo nagusia Zu zeu zara! da Kalitate literarioa usnaten ibiltzen garenei mezua hain argi adierazte horrek apur bat atzera eragiten badigu ere, esan behar da diskurtsoa zuzenean azaltzea apustu egokia dela komiki edo narrazio autobiografiko baten ikusmoldeetik.

Liburuaren beste ezaugarri aipagarri bat da go-goeta eragiten duela, hots, irakurketa baliagarria dela pentsaera kritikoa sustatu eta kontzientziak pizteko. Horregatik, hain zuzen ere, jaso zuen Racimo Saria (aukera-berdintasunean laguntzen duten jardueri ematen zaiena), eta, horregatik, arrakasta handiz urte batzuetan pdf formatuan posta elektronikoko bidez hedatu ostean, euskal argitaletxe batek liburu formatuan kaleratu du. Beraz, guztiagatik, egiten zai-gu liburua interesgarri, narrazio moldea berritzailea izateaz gain, ekimen ausarta delako.

Irakurle gazteak edo helduak jakingo du istorio pertsonal horretatik zer atera, zenbateko sinesgarritasun dosia eman behar dion. . . Amaierako biografiak joko kutsua du, egileek irakurleari keinu konplize bat egiten diote.

Kontakizunari darion umoreak berdintsu harra-patuko du errealitatea gogoko duen irakurlea edo fantasian murgiltzen dena, gaztea izan edo heldua izan, militante feminista edo literatura-aktibista.

Itzulpen lana ere bikaina da. Ziur nago gaztelaniazko esamoldeak euskarara ekartzea ez dela izan lan erraza. Umore ukitua hor dago, bertsioak ez du galdu arintasunik eta freskotasunik.

Ilustrazioek pisu handia dute, koloretsuak dira eta espresibitate handikoak, formetan gehiegizkoak, figurak eta siluetak desitxuratuak; oro har, graffiti-en antza eta ukitua dute. . . atentzioa emateko eta aldarrikatzeko aproposak.

Asun Agiriano

BEHINOLA aldizkariaren harpidetza orria.

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bete ondorengo fitxa.

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria: Posta-kodea:.....

BEHINOLA aldizkariaren urteko kuota (20 €). 2 zenbaki urtean.

Euskadiko Kutzaren honako kontu-korrontean sartu:

3035 0242 68 242 0 00247 I

eta bidali fitxa ordainketa-agiriarekin batera Galtzagorri elkartera.

Galtzagorri elkarte. Zemoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943 471 487